

9. Kostuen Egiturak:

- Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?
- Zuen proiektuak hasieran inbertsio handia egin beharra eskatzen badu, beharrezkoa izango da inbertsio horien guztizko kostua zenbatatea.

Balioan oinarritutako enpresa da *City parking*; hau da, bere zerbitzua kalitatez eskaini nahi dio bezeroari. Horretarako izango dituen kostuak hurrengoak dira:

- **Kostu finkoak:** aparkaleku bakoitzean jarri beharreko sensoreak eta aplikazioaren sorrera eta kudeaketa.
- **Kostu aldakorrak:** sensoreren bat apurtzen bada beste berri baten ordainketa.
- **Bestelako kostuak:** Bestelako kostuak ere baditu aplikazioak. Izan ere, sensoreak jartzea aparkaleku bakoitzean ingurumen-kostuak izan ditzake. Azkenean, elektrizitate zirkuito bat instalatu behar da eta horrek, eragina izan dezake ingurunean.

Horretaz gain lehen aipatu bezala, proiektua aurrera eramateko 14.000€ko hasierako inbertsioa beharko genuke.